

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4865

1246/2020 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Osakidetza Kalitateko zuzendariordearen lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen den.

Osakidetza Kalitateko zuzendariorde lanpostua hutsik dagoenez Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan (Zuzendaritza Nagusia), Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Zuzendaritza Nagusi honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egitea. Hona hemen horretarako

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez, Osakidetza Kalitateko zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdia egiten da, eta bertara honako hauek aurkez daitezke: A1/A2 lanbide-taldeko Osakidetza zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionarioak, estatutupekoak zein lan-kontratudunak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak, betiere eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Titulu akademikoa: A1/A2 taldeetako edozein unibertsitate-lizentzia eduki beharko dute.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigortasun-datarik gabe.
- Esperientzia: 5 urteko esperientzia izan beharko dute, A1/A2 lanbide-taldeetako zereginetan.

Bigarrena.– Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako moduetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek biltzen dituen curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute:

- Titulu akademikoak.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten esperientzia.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste edozein merezimendu.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztargiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitutako beste edozein agiri ere aurkez ditzakete.

2020ko azaroaren 13a, ostirala

Ez da beharrezkoa izango eskakizun eta merezimenduak aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea baldin eta Osakidetzako CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, betiere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi badu.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.